

# 2

## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA D.B.H. 2. mailako AUKERAGAIAK

### ✓ ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA: FRANTSESA

#### ZERGATIK?

Europar Batasuneko gomendioa da, gazteek atzerriko bi hizkuntza ikastea Batxilergoa edo Erdi Mailako ziklo bat bukatu baino lehen.

Beraz, frantsesa bigarren atzerriko hizkuntza bezala ikasteak **aukera** asko emango dizkigu:

1. **Eleaniztasuna** eta konpetentzia linguistikoaren garapena.
2. Europar Batasunaren helburuekin bat etortzea atzerriko bigarren hizkuntza bat garatzean.
3. Hizkuntzaren bidez, bertze kultura eta bizimoduak ezagutzea **oso aberasgarria da garapen pertsonalerako**.
4. Ohitura eta ikuspuntu arrotzak begirunez hartzeak **pertsonaren heziketa osoa** indartzen du eta aldi berean, posible egiten du norberarena baloratzea.
5. Hizkuntzak ezagutzeak bere **abantailak ditu lan munduan**. Lanpostu askotan ezinbestekoa da eta bertze zenbaitetan mailaz igotzeko edo soldata hobeak irabazteko aukera ematen du.
6. **Bidaiatzearen** gozamina gure eskura jartzen du eta **giza harremanak** sustatzen ditu.
7. Europarrak izateari etekina ateratzen ahal diogu Europar Batasunaren prestakuntzarako programetan parte hartuz: **bekak, praktikak Frantziako enpresetan eta abar**.
8. Honek guztiak **garrantzi berezia du eskualde honetan**. Frantzia gertu egonik, frantsesa ikastea **erakargarriagoa** da, eskolan ikasitakoa kalean praktikatzeko aukerak badaudelako. Eta noski, etorkizunean **lana aurkitzeko baliagarria** suertatuko zaielako ikasleei.

#### METODOLOGIA

Gure helburua ikasleek DBH4 eta Batx2 bukatzean hizkuntza lantzen jarraitzea da, eta atzerriko hizkuntzak ikasteko motibazioa sustatzea. Horretarako metodologia inklusiboa erabiltzen dugu eta **dibertsitatea** tratatzen dugu, ikasle bakoitzaren garapena ziurtatuz bakarka zein talde lanean, eta proiektuak lan egiten dugu ikasleek oinarrizko baliabideak frantsesez lortzen dituzten heinean.

**DBH1:** oinarrizko hiztegia barneratzen saiatzen gara, eta bikoteka zenbait lan egiten hasten dira.

**DBH2:** Frantziako ikasleekin gutun trukaketa zuzenak egiten hasten dira.

**DBH3: HIZKUNTZA ESKOLA** lantzen dugu eta **Etwinning** programan parte hartzen dugu. Gero eta proiektu zabalagoak lantzen ditugu, hizkuntza maila garatzen doan heinean.

**DBH4 BATX1 eta BATX2** erabat **proiektuak** lantzen dugu gaia eta **Frantzia** kokatutako ateraldiak sustatzen ditugu. 2022-23 ikasturtean Toulousera eta Bordelera joan gara abenduan. Batx1en HIZKUNTZA ESKOLA ere lantzen dugu.

#### EMAITZAK

**-Ikasle bakoitzaren ikasteko erritmoa errespetatzen eta indartzen da.** Orohar, ikasleek aukera hauek dituzte Frantsesa ikasten badute:

**DBH1, DBH2, DBH3 ikasturtea Frantzia ikasteko aukera**

**DBH3: Hizkuntza eskolako frantseseko A2 titulua lortzea**

**BATX1: Hizkuntza eskolako frantseseko B1 titulua lortzea**

## ✓ AHOZKOTASUNA

**Ahozkotasanak** gero eta garrantzi handiagoa du egungo gizartean. Baina, gure ikasleek gero eta gaitasun urriagoa dute ahoz sentitzen eta pentsatzean duten hura adierazteko.

**Ahozkotasuna** ,komunikazio egoera bat da. Hizkuntza bat erabiliz ikasten da, eta erabiltzen ez denak motibazioan ere eragin negatiboa du.

Beraz, ahozkotasuna lantzea hizkuntza bera indartzea da. Gure hezkuntzan ,ikasle mutuaren figura bultzatu da, hau da, irakurritz ikasten duenarena. Azkenaldian ,berriz, ahozkotasanak indar handia hartu du ikas prozesuan eta ahozkotasuna integratu nahi dute, hitz egiten ikasiz.

Ezin ukatu dugu ahoz edozein esparrutan komunikatzeko dugun beharra ikaragarri dela handia: lanean, ikastetxean, lagun artean.... Testuinguru formal eta informaletan euskaraz eta ahoz komunikatzeko hainbat tresnaren beharrean gara.

### **HIZKUNTZA, KOMUNIKAZIO TRESNA BAT DA : EDUKIAK**

BERTSOLARITZA, IPUINGINTZA, POESIA, IRRATI ELKARRIZKETA, ELKARRIZKETA FORMALA/ EZ FORMALA, NORBERAREN AURKEZPENA, ESPERIENTZIEN KONTAKETA, GERTAEREN KONTAKETA, AHOZKO AZALPENA, AHOZKO LABURPENA, ELKARBIZITZARAKO ARAUAK, JOLAS ARAUAK. ARGUDIOZKOA . IRITZIA ETA JUSTIFIKAZIOA. IKUSPUNTUA EMATEA. MAHAI INGURUA EZTABAIDA. LUDIKO-ESTETIKOA. EMOZIOAK. ANTZERKIA. HITZ JOKOA, ABESTIA

### **METODOLOGIA:** Nola lantzen da ikastetxean ahozkotasuna?

- Ahozko aurkezpenak edo debateak: Sentimenduak, ideiak eta beharrak ahoz adieraziz:
  - Zuzen ahoskatuz
  - Erabiltzen dituzten esaldiak zuzen egituratuz
  - Ahozko ekoizpenak intonazio egokiz esanda
  - Beren ekoizpenetan erritmo dinamikoa edukita
- Ahoz jasotako mezua ulertuz
- Gainerakoekin ahoz eta /edo gorputzez komunikatuz:
  - Txandak errespetatuz
  - Elkarrizketen gaiak jarraituz
  - Gainerakoek kontaktzen dutenarekiko interesa erakutsiz
  - Afektua erakutsiz komunikazio hori zabaltzeko
- Talde lanak.
  - Binakako irakurketa.
- Bitartekaritza konfliktoak lantzeko
- Ikasgelan egoera komunikatiboak sortuz. Ikasle guztiak parte hartzea bermatuz eta hitz egiterakoan hanka sartzearen beldurra gainditzen lagunduz ,librea sentitu daitezela.

## ZERGATIK?

Nerabezaroan ditugun konplexu eta beldurrei aurre egiteko, lotsa gaingitzen ikasteko, talde lanak duen garrantziaz jabetzeko, norberaren nortasuna garatzeko, antzerkia, irudia eta musikaren harremana lantzeko.

## HELBURUAK

Bigarren hezkuntzan eskatzen diren gaitasunak edo konpetentzia espezifiko guztiak lantzea da helburu nagusia: hizkuntza gaitasuna, musika eta matematikaren arteko loturak, munduarekin harremanak, gaitasun digitalak, gizarte gaitasunak, kultura eta arte gaitasunak, norberaren autonomia eta ekimena.

## EDUKIAK

- Gorputz eta adierazpen ariketak.
- Ahotsa lantzeko ariketak.
- Koreografiak eta eszena ezberdinak sortu, kantagintza, dantzak, bertsolaritza, perkusioa (darbukak), gorputz adierazpena eta erritmoa, boomwhackerrak...
- Iparraldeko Donibane Garaziko eskolako ikasleekin harremana, eskutitz lagunak sortu eta elkar ezagutu ateraldi bat eginez.
- Pelikula bat egin: gidoia sortu, eszenak estrukturatu eta lotu, jantziak, eszenografia, antzeztu, hots banda gehitu (musika berria sortuz edota dagoena internetetik deskargatu, bide batez musika eta zinea landuz), grabazioa, irudi eta soinu edizio programa bat landu...

## METODOLOGIA

Guztiz praktikoa. Ikasleak mugimenduan egoten dira klase guzietan, batzuetan ikastetxeko eremuan barrena, ez klasean bertan. Garrantzitsuena talde lana da, norberaren aportazioak ezinbestekoak direlarik.